



## ONDORIOAK

Batzorde Zientifikoak elkarrekin izan ditugun saio guztien edukian eragina izan duen funtsezko kontzeptua azpimarratuz hasi nahi du Batzarraren ondorioen aurkezpena: BERRIKUNTZA, honek bultzatzen baitu etengabeko hobekuntza eta aldaketa eragiten.

Batzordeak berretsi ahal izan duenez, parte-hartzaileek ez dute BERRIKUNTZA une bat bezala ikusten, baizik eta prozesu bat bezala. BERRIKUNTZA-ekimenak sortu, planifikatu, garatu eta ebaluatu egiten dira. Hori guztia etengabe errepikatzen den Zikloa bezala planteatzen da, eta neurri horretan, berritu egiten da.

Lan-saioak hasi zituen txosten markoak enpresa baten (Irizar) ibilbidea aurkeztu zuten; haren ikuspegi estrategikoak *“berrikuntza-erreferentzia bat izatea”* ezartzen du funtsezko baldintza gisa. Helburu hori oinarritzat hartuta, enpresa-proiektua hainbat zutaberen gainean eraikitzen da: bezeroak, lanbide-gaitasuna, talde-lana, ezagutza eskuratzea eta transferitzea, partekaturiko esperientzia eta ikaskuntza eta pertsonenganako esperientzia.

Batzordearen ustez, Txosten Markoak nahikoa sendoa den adierazle-taldea ekartzen du, Berrikuntza terminoa edukiz betetzeko moduko adierazle-taldea, eta, alde batetik, giza kapitalaren berrikuntza-prozesu propioak (pertsonak eta ekipoak) bereizten ditu, eta, bestetik, egiturazko kapitalari loturiko berrikuntza-prozesuak (zerbitzu eta produktuen kalitatea, teknologia berrien aprobetxamendua, kanpo-eragileekin lankidetzak).

Ikuspegi estrategikoa, exekutiboa eta erlaziozkoa lotzen dira, norberaren iguripenak eta antolamenduaren helburuak uztartzeko moduan.

Erreferentziako marko hori abiapuntutzat hartuta, egun hauetan *hainbat berrikuntza-esperientzia* ezagutzeko aukera izan dugu -batzuk, pentsatutakoak, gehienak, praktikan jarritakoak-, lau esparruri buruzkoak gehienbat: ikastetxe/enpresa harremanak; ikaskuntza ez-formalak akreditatzeko alorreko proposamenak; kalitatezko erodei buruzko ekimen berriak; eta IKTBen prestakuntza-erabilerei buruzko gogoetak.

Lau esparru horiek kontuan hartuta egituratu ditugu orain azaltzen dizkizuegun ondorioak.

a) IKASTETXEA/ENPRESA HARREMANAK

Batzordeak bost ikaskuntza azpimarratu nahi izan ditu, gure ustez lanbide-heziketako sistemak produkzio-sistemarekin dituen loturen garapenez arduratu diren txostenen edukia laburbiltzen baitute. Ikaskuntza hauek lankidetzaren garapen-etapa berriari nagusi behar duen printzipio bati erantzuten diote, eta honela formula daiteke: ezagutzaren gizartean ezin erakundek, eta ez eskolak ez enpresak bereziki, ezin du uste izan lanerako trebetasunerako beharrezkoa den lanbide-gaitasuna berak bakarrik lor dezakeenik.

Ondokoak dira adierazitako ikaskuntzak:

- Ikastetxea/enpresa lankidetzaren, produkzio eta prestakuntza sistemen arteko lankidetzaren helburu nahigarria izateaz gain, hainbat esperientzia praktikok adierazi dutenez, posiblea eta elkarren mesederako ere bada.
- Ikastetxea/enpresa lankidetzari balioa emateak produkzio-jardueraren ikaskuntza eta prestakuntza prozesua ere badela ulertzea eskatzen du; eta prestakuntza-jarduerak zerbitzuak emateari bideraturiko prozesua era izan behar duela.
- Teknologia berrien erabilera intentsiboak ikaskuntza-gune komunen garapenaren mesedetan behar du izan, ikastetxeen eta enpresen arteko harremanak areagotzea erraztuz.
- Transferentzia eta lankidetzaren formula ugari daude, eta ez diete eredu orokorrei erantzun behar, baizik eta erreferentziazko ingurunearen premiei. Ildo horretan, Batzordeak gogorarazi nahi du gutxienez bost esperientzia ezagutzeko aukera izan dugula, ezberdinak baina osagarriak:

- GKN/IMH lankidetzaren esperientzia berriazko lankidetzaren oinarrituta dago; hasieran GKNk egiten dituzten bezero-lanak eta IMHk hornitzailearenak, baina azkenik biek ere lortzen dituzte onura nabarmenak ikaskuntzaren, prestakuntzaren eta ezagutza eguneratzearen alorrean.
  - Rolls-Royce eta Granfield University ikastegiaren arteko lankidetzaren izaera iraunkorra duen elkarrekintza-eredua da; enpresarentzako, transferentzia teknologiko eta ezagutzaren transferentziak prozesua lantzeko produktuari berari eragiten dio, eta unibertsitatearentzako, ikerketa aplikatuko alorra da, eta argitalpenak, biltzarrak, doktoretza-ikastaroak eta bere graduatuaren lanbideratzea bultzatzen ditu.
  - North Carolina Community College System sistemaren kasua egitura egonkor batean oinarritzen da, kluster modukoa; zentro funtzionalen, ikaskuntza-zentroen, college elkartuen eta lurralde-gaitasuneko zentroen arteko harremanak bideratzen ditu, etengabeko erlazioa ezarriz prestakuntza-esparru, ikerketa-esparru eta bioteknologiaren sektorean mugaturiko produkzio-esparruaren artean.
  - Siemens Cooperates Education sistema teleikaskuntzaren aukeren adibidea da, enpresek prestakuntza-sistemarekin duten lankidetzaren estrategiaren markoan.
  - Azkenik, Weiden-go (Alemania) Lanbide Eskolaren kasua dugu; "eskola enpresa gisa" eredua biltzen du zehatzago, ez soilik erabilera profesional eta hezkuntza eta etxeko erabilerarako komunikazio estandarreko garatzearen bidez, baita merkatura bideratutako mota oso desberdineko zerbitzuak ematearen bidez ere.
- Azaldu dizkiguten esperientzien heterogeneotasun eta lurralde-aniztasunak adierazten duenez, ikastetxea/enpresa lankidetzaren harremanak ez dira printzipio-deklarazio bat, prestakuntza-zentroetatik eta enpresatik emaitza on-onekin betetzen ari diren bidearen erakusgarri baitira. Izan ere, prestakuntza-zentroen eta enpresen arteko ezagutza-transferentzia Berrikuntzaren adierazle garrantzitsutzat hartu behar da gaur egun.

## b) IKASKUNTZA EZ-FORMALEN AKREDITAZIOA

Ikaskuntza ez-formalen eta informalen akreditazioa —dagozkien kualifikazio-sistemen bidez— geroz eta erronka ohikoagoa denez Lanbide Heziketaren esparruan,

Batzorde Zientifikoak bere ustez esparru honetako txostengileen ekarpen garrantzitsuenak izan direnak nabarmendu nahi ditu:

Saarinen andrearen aurkezpenari dagokionez (ikus dagokion txostena), Finlandiako sistemari buruzkoa, Batzordeak ondoko puntuak azpimarratu nahi ditu:

- Zein prozeduraren bidez eskuratu diren alde batera utzita, gaitasunak ebaluatzeko testa edo probak eratzea.
- Marko malgu bat egotea —hiru kualifikazio-motak eraturikoa— ikaskuntza ez-formal eta informalak aintzat hartzeko.
- Kualifikazio Batzordeen zereginak, osaerak eta euren gaitasunek sistema malgua egituratzen dute, eskaerara egokiturikoa, populazio helduraren gaitasuna eta kualifikazioa aintzat hartzeko premiei erantzuteko ahalmen handiarekin.

Riche eta Rauillan jaunen txostenei dagokienez (ikus dagozkien txostenak), Frantziako sistemei buruzkoak, ondokoa azpimarratu nahi genuke:

- VAE (Validation des Acquis de L'Expérience) sistemak oinarritzat hartzen dituen hurbiltasun eta erreaktibotasun printzipioak.
- Formula deklaratioa; haren arabera, gaitasuna deskribatzeko ariketa bera gaitasuna eskuratzeko modu bat da, eta ondorio oso positiboak ditu ez soilik populazio helduarentzako, baita hezkuntza-prestakuntza sistemarentzako berarentzako ere.

c) KALITATE-SISTEMA BERRIAK

Tighe eta Orbea jaunen ekarpenek (ikus dagozkien txostenak) azaldu dutenez, Kalitatearen Kudeaketa Sistemek, estatikoak izatetik urrun, etengabeko azterketa eta eguneratzea behar dute, eta are gehiago hezkuntza-antolamenduetan; horien berezitasunak eta haien zenbait egituraren zurruntasuna gainditu beharreko mugak izaten dira.

Batzordeak ondokoa nabarmendu nahi du esparru honi dagokionez:

- Kalitatezko ereduak eratzeari dagokionez, arreta berezia eskaintzen zaio oraindik ere sentsibilizazio-maila areagotzeari, eta pertsonen eta hezkuntza-antolamenduen konpromisoari aurrerapausoak egiten jarraitzeko zerbitzua emateko hobekuntzan.
- Alor honetako berrikuntza-lerroetako bat bezala har daiteke kalitatezko eredueta ezarritako prozedurak sinplifikatzeko garatzen ari den ahalegin aipagarria.
- Nahiz eta kalitate-irizpideak ezartzen dituzten arauak bere horretan dirauten, geroz eta interes handiagoa sumatzen da potentzialitateen eta horiek guztiak osatzen dituzten erreminten aprobetxamendurako, zalantzarik gabe erakunde hartzaileen mesedetan izango diren laburpen-ekimenak sustatuz.
- Zehatz adierazita, Batzordeak bi eredu berariazkorekin erlazionaturiko proposamenak baloratu eta bildu nahi ditu:
  - Investors in People Britainia Handian garaturiko eredua da; lau giltzarri nagusitan oinarrituta dago (konpromisoa, planteamendua, ekintza eta ebaluazioa), eta horien potentzialitateetako bat haren garapenean parte hartzen ari diren antolamendu ugari eta askotarikoen esperientziak aprobetxatzea da. Inplementazio-ziklo nahiko sinplean oinarrituta, ereduak erlazioa joria ezartzen du plangintza eta ebaluazio prozesuen artean.
  - ISO-IWA2 dokumentua prestakuntza-sektorerako bereziki eskaturiko kalitate-prozesuak definitzeko irizpideak eta norabideak emateko ahalegina da. Dokumentuaren helburua arau bilakatzea ez bada ere, erreferentzia izan nahi du hezkuntza-arloan hobekuntzak ezartzeko.

d) IKTB-EN PRESTAKUNTZA-ERABILEREI BURUZKO GOGOETAK

IKTBen prestakuntza-potentzialtasunak *hesi digitala* txikitzeko estrategiak garatzeko oraingo eta geroko ahalmenaren menpe daude neurri handi batean, eta baita IKTak prozesuak berritzeko tresna bezala jartzen dituzten prozesuen menpe ere, haiek erabiltzeko geroz eta erraztasun handiagoarekin.

Ildo horretan, Batzordea txostengileen ekarpen esanguratsuenak laburbiltzen saiatuko da. Florez jaunaren txostenari dagokionez (ikusi dagokion txostena):

- Ikuspuntu orokorretik begiratuta, Batzordea bat dator txostengilearen ustearekin; IKTBek aukera ederra eskaintzen digute herritarren ezagutza eta prestakuntza

hobetzeko, baina pertsonen, herrialdeen edo sektoreen artean aldeak areagotu ditzaketen faktorea ere badira.

- Aldez aurreko eta funtsezko zeregina ahalik eta erabiltzaile gehienei teknologietara sartzeko aukerak bermatzea da, dagozkion egokitzapenak eraginez hurrenez hurreneko helburu sektorialen arabera.
- Sarbideen kantitatea eta kalitatea hobetzen den neurrian, prestakuntza-prozesuen mesedetarako tresnak dira IKTbak.
- Teknologia berriak prestakuntza-tresna eraginkorra izango dira interfaze-sistematan aurrerapenak izaten badira. Horretarako, beharrezkoa da erabiltzaile arruntak informazioari nola aurre egiten dion jakitea.

Regidor jaunaren txostenak (ikus dagokion txostena) TBk prestakuntza-jardueretarako dituen aukerak aztertu ditu. Ondokoak azpimarratu nahi ditugu edukiari dagokionez:

- Telebista, eta baita irratia ere, oso bitarteko aprobetxagarriak dira erabiltzaileei ikasteko edukiak helarazteko.
- Erabilera horiek sendotzeko gai soziologikoak (erabiltzaileen jarrera pasiboa) zein teknologikoak (pantailaren definizioa eta banda zabaleko kontsumoa), eta prestakuntzakoak (ikaskuntza naturalaren ordez ikaskuntza gidatua ezartzea) hartu behar dira kontuan.
- EITB.net esperientzia erreferentzia da zerbitzuen hobekuntzan, produkzioan eta edukien mantentzean edo ereduak eta esperientziak trukatzean.

Azkenik, Mujika jaunak esandakoari dagokionez (ikus dagokion txostena), ondoko gaiak nabarmendu nahi ditu Batzordeak:

- LH ireki baten ikuspegi aurreratua, ezagutzari loturikoa eta hartara bideratua, irisgarritasun, konektibitate eta elkarreragin printzipioetan oinarrituta, espazio eta denboraren hesiak txikitzeko gai izango dena prestakuntza-zerbitzua gizarte osoari zabaltzeko.
- Edukiak produzitu eta eskueran jartzeko ahalegin handia egiteko premia.
- Ikastetxeei teknologia berrien kudeaketan erdigunea emateak duen garrantzia.
- Profesionalen esku dauden ekipamenduak eta prestazioak areagotzeko premia, haien prestakuntza eta ezagumendua sustatzea eta IKTBen garapenari bereziki loturiko langileak izatea.

- LHko irakaskuntzen egitura modularra aprobetxatzeko aukera e-learning ikastaroen garapen handiagoa sustatzeko.

Azkenik, Batzordeak zera nabarmendu nahi du: enpresa eta prestakuntzaren arteko topaketa hauek maila desberdinetan errepikatzeko garrantzia, BERRIKUNTZAKO esperientzia baitira berez, eta lankidetzeta eta osatze-lanerako bide posibleak erakusten baitituzte.